



## **A m o r o t o k o U d a l a**

Ellexalde Auzoa, 1  
48289 Amoroto (Bizkaia)  
Tel: 946842549 - Fax: 946243704  
E-mail: mblaka.amoroto@bizkaia.org  
Web: www.amoroto.net

**Akta: 03/04**

### **2004KO MARTXOAREN 24AN EGINDAKO BATZARRA**

Amoroton, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta lauko martxoaren hogetia lauan, gaueko zortzietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andrea buru dela.

***Bertaratuak:***

*Zinegotziak:* Bitor Mari Gabiola Leniz  
Igor Gabiola Antxustegi  
Pedro Mari Arriaga Meabebasterretxea  
*Idazkaria:* César Gandarias Badiola

***Bertaratu ez direnak:***

Ramon Abaroa Iturran  
Sorkunde Gabiola Zabala  
Ainara Ikaran Zugazaga

Alkate-udalburu andreak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

### **1.- ETXEBIZITZA BABESTUAK ERAIKITZEKO ELEIZALDEA 1 EU-AN DAGOEN UDAL PARTZELA ZUZENEAN BESTERENTZEA LEARRI S.A. SOZIETATE PUBLIKOAREN ALDE.-**

Ikusirik Udal Administrazio hau partaide deneko LEARRI S.A: sozietate publikoaren legezko ordezkariak eskatuta irekitako espediente, udalerrri honetako Eleizaldea 1 EUn dagoen udal partzela zuzenean bere alde besterentzeko.

Jakinik indarrean dauden AMOROToko Plangintzako Udal Arau Subsidiarioekin bat (Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintzak Sailak emandako 528/1998 Foru Aginduari jarraiki onetsitakoak, 2001eko maiatzaren 14ko 91 zenbakidun BAOan), bidezkoa dela aipatutako lurretan zortzi etxebizitza eraikitzea, lokal eta garaje eta guzti.

Jakinik izapidetze bidean dauden Arau Subsidiarioen aldaketa zehatz bati jarraiki, aipatutako partzelatik lur-zati bat banandu behar dela, berau espazio publiko modura erabili ahal izateko.

Jakinik 2004ko urtarrilaren 23an AMOROToko Udal Administrazioak eta LEARRI S.A. sozietate publikoak lankidetzakontratu bat izenpetu zutela, aipatutako etxebizitzak sustatu, eraiki eta saltzeko eta, besteak beste, baldintza hau ezarri zutela: etxebizitza horiek udalerriko herritarrei besterenduko zirela, azken prezioak sustapenarentzako eta eraikuntzarentzako mozkinik ekarri barik.

Jakinik aipatutako hitzarmenean lurren balioa 144.243 eurotan (ehun eta berrogeita lau mila berrehun eta berrogeita hiru euro) tasatu eta baloratu zela, udal arkitektoak aldeko irizpena eman diola, babes helburua edo ondoren etxebizitzak arrazoizko prezioan besterentzea bideragarri eginez.

Jakinik kopuru horren arabera besterentzeak Udalbatzaren urteko aurrekontuko baliabide arrunten % 25 gainditzeko duela.

Aintzat harturik Lurzoruaren Ondare Publikoei buruz Eusko Legebiltzarrak emandako 20/1998 Legeko 10.2 artikuluan ezarritakoa (132 zenbakidun EHAA).

Aintzat harturik erabakia hartzeko eskumena Udalbatzari dagokiola eta horretarako osoko bilkuran kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutua eduki behar duela, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak emandako idazkeraren arabera (301 zenbakidun BOEa) Toki Jaurbidearen Oinarri buruzko Legeko 47. artikuluan jasota dagoen bezalaxe.

Aintzat harturik ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onetsitako Toki Erakundeen Ondasunei buruzko indarreko Erregelamenduko 109. artikuluan (161 zenbakidun BOE) xedatutakoa, ondasunak Udalbatzaren urteko aurrekontuaren baliabide arrunten % 25 gainditzen duenez, alde aurretik Bizkaiko Foru Aldundiak baimena ematea beharrezkoa dela;

Udalbatzak hau erabaki du, aho batez:

Lehenengoa: Udalaren jabegokoa den eta Eleizalde I Egikaritzapen Unitatean dagoen partzelatik lur-zati bat banantzea. Hona hemen lur-zati horren deskribapena: Amoroto herriko Elizaldea I Egikaritzapen Unitateko 4 zk. orubearen hegoaldea, 50 metroko luzera eta 1,6 metroko zabalera duena, gutxi gorabehera, guztira 80,12 metro karratu dituela. Mugakideak: iparraldera banantzen deneko gainerako lurra, hegoaldera urbanizatu ezin den lurzorua, ekialdera urbanizazio publikoa eta mendebaldera Eugenio Erkiaga Iturraranen orubea.

Aurrerantzean lursail nagusia honelakoa izango da: Amoroto herriko Eleizalde I Egikaritzapen Unitateko 4 zk. orubearen iparraldea, 1.474 m<sup>2</sup> dituen eta angeluzuzena dena. Mugakideak: iparraldera urbanizazio publikoa, hegoaldera jabari publikoko lur modura erabiliko den banandutako lur-zatia, ekialdera urbanizazio publikoa eta mendebaldera Eugenio Erkiaga Iturraranen orubea.

Bigarrena: Erabaki honen baldintzak betez, eta 144.243 eurotan (ehun eta berrogeita lau mila berrehun eta berrogeita hiru euro), zuzeneko besterentzea onestea, LEARRI S.A. sozietate publikoaren alde. Hauxe da besterenduko den lur-zatia, Eleizalde I Egikaritzapen Unitatean dagoena, hain zuzen ere:

Amoroto herriko Eleizalde I Egikaritzapen Unitateko 4 zk. orubearen iparraldea, 1.474 m<sup>2</sup> dituen eta angeluzuzena dena. Mugakideak: iparraldera urbanizazio publikoa, hegoaldera jabari publikoko lur modura erabiliko den banandutako lur-zatia, ekialdera urbanizazio publikoa eta mendebaldera Eugenio Erkiaga Iturraranen orubea.

Hirugarrena: Learri, S.A.-ri eta Amorotoko Udalaren alde saldu berria den lursailaren gainean udalerriko ur beltz orokorrak eroateko bide-zorra eraikitzea. Horretarako lur azpiko hodi bat jarriko da partzelaren hego-ekialdeko muturretik mendebaldeko mugaraino eta muga horretatik ipar-mendebaleko muturreraino. Aipatutako hodiaren lehen zatia (hego-ekialdeko muturretik mendebaldeko mugaraino) 60 metroko luzera dauka. Bigarrenak, berriz, (mendebaldeko mugatik ipar-ekialdeko muturreraino) 18 metro dauzka. Neurri horiek gutxi gorabeherakoak dira.

Bide-zorrak mendeko finkaren jabearen baimena ekarriko du berekin, hodia kontserbatu, konpondu edo beharrezkoa balitz ordezteko lanak egin ahal izateko, baita horretarako mendeko finkan sartzeko eskubidea ematea ere.

Laugarrena: Aipatutako zuzeneko besterentzea egiteko Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintza eta Udal Harremanen Sailari derrigorrezko baimena eskatzea, foru-baimen hori eman eta jakinarazteko baldintzapean.

Bosgarrena: Alkate andreari dagozkion eskritura publikoak emateko eta izenpetzeko ahalmena ematea, baita espedientea erabat amaitu arte berau bultzatzeko ere.

## **2.- AMOROTOKO HIRI GUNEAN ZERBITZUAK BERRANTOLATZEKO ETA JARTZEKO, BIDEIN, S.L.K EGINDAKO PROIEKTUAREN AZTERKETA "LEARRI, S.A." MERKATARITZA-ENPRESAREN ESKU UZTEKO PROPOSAMENA.-**

Alkate andreak azaldu duenez, Bidein, S.L.k Hiri Gunean zerbitzuak berrantolatzeko eta jartzeko proiektua egin du jadanik. Proiektu hau aurrera eramateko dirulaguntza batzuk eskatu dira. Dena den, beharrezkoa litzateke proiektuan agertzen diren eginkizunen azterketa eta planifikazioa egitea. Aipatutakoa kontuan izan da, eta ondokoa ere OINARRITZAT HARTU DA:

Lehenengoa: Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15 artikulua, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeko aldarazpenak aintzat hartuta, ondokoa ezarri zuen:

1. Zuzenbide publikoko erakunde edo administrazio-organoen eskumeneko jarduerak, zehazkiago esateko, arlo material, tekniko edo zerbitzu arloko jarduerak, burutzeko ardura Administrazio bereko edo beste Administrazio bateko organo edo erakundeen esku utz daiteke, eraginkortasun arrazoiak direla-eta, edo jarduera horiek burutzeko bitarteko tekniko egokirik ez badago.
2. Kudeaketa norbaiten esku uzteak ez du esan nahi eskumenaren edo eskumena burutzeko funtsezko elementuen titulartasuna lagatzen denik, eta kudeaketa besteren esku uzteko proposamena egiten duen organo edo erakundearen ardura da besteren esku utzitako jarduera material zehatza osatzen duen edo jarduera horren euskarri den egintza edo ebazpen juridiko oro burutu edo ematea.
3. Administrazio bereko zuzenbide publikoko administrazio-organoen edo erakundeen arteko kudeaketa norbaiten esku uztea bertako araudiak ezarri bezala formalizatu beharko da eta, araudirik ez balego, parte hartzen duten organo edo erakundeen berariazko erabakiaren bidez. Edonola ere, kudeaketa norbaiten esku uzteko proposamena formalizatzeko bitartekoa eta ebazpena bidezko egunkari ofizialean argitaratu behar dira, eraginkorrak izan daitezten.  
*Administrazio bakoitzak beharrezko betekizunak arautu ahal izango ditu akordio horiek baliozkoak izan daitezten. Akordio horiek, gutxienez, honako hauek aipatu behar dituzte berariaz: eragina jasango du(t)en jarduera(k), indarraldia eta norbaiten esku utzitako kudeaketaren izaera eta irismena.*
4. Kudeaketa hori norbaiten esku uztea Administrazio desberdinetako organo eta erakundeen artean egiten bada, bidezko hitzarmena sinatuko da organo eta erakunde horien artean, Autonomia Erkidegoetako zerbitzuak, modu arruntean, probintziako Diputazioek, edo bidezkoa bada, uharteko Kabildo edo Kontseiluek kudeatzen badituzte salbu; izan ere, kasu horretan Toki Araubideko legediari heldu behar zaio.
5. Artikulu honetan araupetzen den kudeaketa norbaiten esku uzteko artikulu honetan araubide juridikoa ez da aplikatuko lehenengo atalean adierazitako jarduerak zuzenbide pribatuko pertsona fisiko edo juridikoek burutu behar badituzte. Izan ere, kasu horretan kontratuei buruzko Estatuko legediari heldu behar zaio, bidezkoa denean, eta indarrean dagoen legediaren arabera, administrazio-zuzenbideari jarraiki egin behar diren jarduerak ezin dira izaera horretako pertsona edo erakundeen esku utzi.

Bigarrena.- "LEARRI, S.A." enpresa bideratzailea da eta bere gizarte-jarduerak burutu beharreko obrak barne hartzen ditu. Enpresaren kapital sozial guztia toki-erakundeena da, Udal honena, besteak beste, Udala "LEARRI, S.A." sozietateko bazkidea da eta. Horrela bada, kontratazioari dagokionez, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua aplikatzen zaio; hori dela eta, kasu honetan funtsezko baldintzak eta baldintza organikoak betetzen dira LEARRI, S.A.

*sozietateak goiburukoan adierazitako obren burutzapenean organo kudeatzaile gisa jardun dezan.*

Ondorioz, aurreko arauak, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen Legea, orokorrean eta berariaz aplikatu beharreko gainerako arauak, bai eta gai honi dagokionez egindako txostenak aztertu ondoren, Udalaren osoko bilkurak, gaia eztabaidatu eta gero, aho batez, ondokoa ERABAKI DU:

1) LEARRI, S.A. merkataritza-enpresaren esku uztea Amorotoko Hiri Gunean zerbitzuak berrantolatzeke eta jartzeko Bidein, S.L.k egindako proiektuaren azterketa.

2) Alkate andreari eskumena emango zaio, erabaki hau betetzeko egintza edo izapideak egin eta, bidezkoa bada, akatsak zuzen ditzan.

3) Erabaki honen berri emango zaio LEARRI, S.A. enpresari.

### **3.- 2003KO OHIZKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.-**

Jarraian Kontuhartzaitzak idatzitako bi mila eta hiru urteko ohizko aurrekontuaren likidazioaren berri eman da. Honi loturik daude, indarreango legediak derrigorrezkotzat jotzen dituen agiriak et bere laburpena ondorengo hau da:

Kaxako existentziak 2003ko abenduaren 31an.....	105.934,99 €.
Data berdinean kobratzeko daudenak.....	64.303,26 €.
Data berdinean kobratzekoak ABSOn.....	3.008,74 €.
Data berdinean ordaintzeko daudenak.....	113.005,18 €.
Data berdinean ordaintzekoak ABSOn.....	53.079,69 €.

DIRUZAINTZAREN GERAUNA.....7.162,12 Euro.

### **4.- OLETAKO JAIETAN BARRAKAK JARTZEKO BAIMENA.-**

Oletako jaietan barrakak jartzeko Udaletxean aurkeztutako eskaeren berri eman da.

Kontutan izanik barrakak jartzeko dagoen leku mugatua.

Oletako Jai Batzordeari kontsultatu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) 2004ko Oletako jaietan, leku gutxi dagoenez, ondorengo barrakak jarri ahal izango direla bakarrik:

- Zelaian, kiosko atzean, Luz Divina dos Santos andreak eskatutako tiro kaseta.
- Ibaiganeke parkinean, Abilio dos Santos jaunak eskatutako Karrusela eta ohe elastikoak.
- Ibaiganeke parkinean, Manuel dos Santos jaunak eskatutako tiro kaseta.
- Ibaiganeke parkinean, M<sup>a</sup> Luz Gaspar Rodriguez andreak eskatutako gozoki postua.

2) Oletako jai batzordeak zehaztuko ditu kokalekuak eta baldintzak. Barrakei dagokien dirukopuruaren ordainketa ere batzorde honi egingo zaio. Tarifak honako hauek izango dira:

- Tiro kaseta Zelaian: 180 eur.
- Ohe elastikoak: 160 eur.
- Karrusela: 160 eur.
- Tiro kaseta Ibaiganen: 120 eur.

3) 300 euroko fidantza jartzea. Fidantza hau ordaintzerakoan ulertuko da barraka bakoitza jartzeko baimena emanda dagoela. Aipatutako dirukopurua jaiak amaitu eta hilabete baten barruan itzuliko da, barraken jabeek baldin eta ondorengo betebeharrak hauek betetzen badituzte:

- Erabilitako kokagunea garbitu.

- Batzordeak barrakak montatzeko eta desmontatzeko ezarritako datak errespetatu.
  - Petardorik edo antzekorik ez saldu.
  - Batzordeak jarri daiteken besteak.
- 4) Akordu hau aipatu eskatzaileei jakinaraztea.

## **5.- DIRULAGUNTZA ESKAERAK.-**

Aurkeztutako dirulaguntza eskaerak azterturik, Udalbatzak aho batez erabaki du ondoren aipatzen diren dirulaguntzak ematea:

- AVIFES Elkarteari, 109,91 euro.
- Lekeitioko "Akarregi" Pilota Kirol Elkarteari, 150 euro.
- Dosanbiz Bizkaiko Odol Emooileen Elkarteari, 150 euro.
- Euskal Eskola Publikoko Festarako, 150 euro.
- Marrokoko lurrikarari buruzko laguntza, 300 euro.
- Herri Urrats festarako, 200 euro.
- UEMA elkarteari, 2.772 euro.

## **6.- GASTUAK.-**

Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, behar bada onartzeko:

- Aralderen faktura, 113,30 euro.
- Zurgin Aroztegiaren faktura, 2.648,40 euro.
- Saneamientos Ondarroaren faktura, 29,58 euro.
- Hika Mikaren faktura, 737,37 euro.
- Fontaneria Letraukuaren faktura, 50,16 euro.
- Würthen faktura, 44,66 euro.
- Zaldibiaren faktura, 20,88 euro.
- Bidein, S.L.ren faktura, 786,18 euro.

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu andreak bilera amaitutzat eman du gaueko hamaikak eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.